

Antxiñako fotografixia

Oñatiarrak *Orixe* idazliarekin

Fotografixa interesantia gaurkua. *Gerrako garrak Oñatin* izeneko liburuan be agertu geben, baiña aparteko azalpenik emun barik. Orainguan, batari eta bestiarri galdetu eta gero, datu gehixuagorekin argiketako asmuarekin gatoz. Tituluan esaten danez, oñatiar batzuk dittugu argazki honetan *Orixe* euskal idazle famauarekin batera: ezkerretik eskumara, jarritta, **Felipe Jausoro Uriarte** eta **Joxe Arrazola Gotxikoa**, mutikotxua altzuan dauela; zutik, barriz, **Nikolas Ormaetxea Pellejero Orixe**, **Jabier Egaña Aldazabal** abade-jantzixarekin, eta **X. X.** Noiz eta nun ataratakua dan be zihaztu geinke gutxi gorabehera: hemengo gerra zibil denporan edo ondorentxuan, 1939 inguruan, eta Ipar Euskal Herri-xan, Donibane Lohizunen biharbada. Izan be, anaiarteko gerratiaren hasieran hemendik hanka egin bihar izan euen hiru oñatiarriok, 1936ko udazkenian matxinuak Oñatin sartu ziranian:

- **Felipe Jausoro** (1898-1986), Urbarri auzoko maixua zan garai haretan eta orduko aldizkari eta periodiko abertzalietan Oñatiko kronikak idazten zittuan; gerriaren zurrubilluak harrapo ebenian, iges egin eben zelabait Iparraldera. Han adiskidetu zan *Orixerekin*, eta alkarrekin egon ziran 1940ko hillabete batzuetan erdi-presu Gurs-eko esparruan; alemanak Frantziatz jabetu ziranian, hona bueltau eta urtebete kartzelan egon bihar izan eben; gerra oste-ko urte latz eta luzietan be etzotsan itzi euskeria erakustiarri eta eskribittiari. Gerra aurrian *Olaiturri* ezizena ebalibaeben, 1960ko hamarkadan *Errizale* zan bere goittizena.

- **Pepe Arrazola** (1892-1957), Kale Barriko *Konfitterua*-nekua. Oso ezaguna zan Oñatiko batzokixan eta bertako teatro-taldiaren animatzaillietako bat. Iparraldera fan zanian, Norberta Ugarrika errenterixarra ezagutu eta harekin ezkondu zan. Juxtu-juxtuan librau ei zan, edadiarengatik, Gurs-eko esparrutik. Oñati-ara bueltau eta hemen hil zan 1957xan.

- **Jabier Egaña** (1919-1958), Kale Barriko panaderixako semia. Oñatiko institutuan batxillera ikasi eta 17 urteko mutil gaztia zan Frantziara alde egin bihar izan ebenian. Parisen abade karreriarri ekin otsan, baiña, dirudienez, sarrittan etorten zan Ipar Euskal Herrira. *Orixe* han ezagutu eta hartu-emun estua izan eben idazliarekin. Frantziatik etorri zanian, Aldaba herritxuan egon zan ezkutauta, Ziriako Arriaran abade oñatiarraren etxian, papelak konpondu arte. Etxeko okindegixaren arduria hartu eben harrezke-
ro; ezkondu egin zan Maritere Mendizabal mondraguetarrarekin eta bi mutiko eduki zittuan bikotiak, baiña oso gazterik hil zan gripe zittal batek jota.

- **Nikolas Ormaetxea** (1888-1961) etzan txantxikuarra, Orexan (Gipuzkua) jaixo eta Huitzin (Naparrua) hazittakua baiño; gerra aurretik nahiz osteko lehenengo hamarkadetan euskarazko idazlerik garrantzitsuenetakua izan zan; gerra-hasieran atxillotu eta Iruñea ondoko San Kristobal gotorlekuan hillabete batzuk pasau ondoren, ezkutauta egon zan Tolosa eta Orexan; hemendik iges egin bihar izan eben barriri 1938ko udan, orainguan Iparraldian babesu billatuaz. Hala eta guztiz be, Gurs-eko derrigorrezko egonaldixaz etzan librau. Sake onekua zan nunbait *Orixe*, eta *Quito'n arrebarekin* liburuan kontaitten doskunez, Felipe Jausoro lagun oñatiarrari eskerrak barddindu eben Gurs-en, neurri batian, bere sabel asekaizta.



J. E.

Argazkixa Gurutz Jausorok eskuratu dosku, horren gaiñeko argibide asko letxe. Beste informaziño batzuk Arantxa Jauregi, Miguel Etxaburu, Xabier, Jon eta Arantxa Egaña nahiz Maria Luisa Azurmendiren bittartez aillegau xaku. Milla esker danoiri!

Fan zan hilleko argazkixan ezezaguntzat joten geben lehenengo illarako kontzejal bat identifikau ahal izan dogu Axun Arzuagari esker. Bernardo Igartua da, Olabarietako Jurgi baserrikua. Eskerrik asko!